

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### CAICEDOYUSOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendurrean jartzea, eta 2023ko bigarren seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea**

Egin delarik CaicedoYusoko etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, 2023ko bigarren seihilekoari dagokiona, jendurrean egongo da hamabost egun balioudenez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertze eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek CaicedoYusoko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan azertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko epean kobratzeko aldia 2024ko apirilaren 22tik maiatzaren 22ra artekoa da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2024ko apirilaren 22an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenei Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

CaicedoYusoko Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaru eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

CaicedoYuso, 2024ko apirilaren 8a

*Lehendakaria*

**AURELIO GARCIA SANJUANES**